

txintxarri

Kirola amesgaizto bihurtzeko arriskua

Iñigo Altuna txirrindulariak errepideko arriskuei buruz hitz egin du TXINTXARRI-rekin / 8-9

Santa Anaren zain

Eskulangintza azoka izango da igandean. Asteazkenean, parodia eta pala txapelketako finalak / 2-3

Miguel Angel Oriberen
'Brunet' estatua
inauguratu dute
Karmengo Oriako
jaietan / 6-7

Euskal Herriko
igeriketa txapelketan bi
urrezko eskuratu ditu
Buruntzaldea IKT
taldeak / 10

Neinor HOMES GOIEGI HOMES II

Izena-emateko epea irekia
urriaren 30 arte. Apunta zaitetz!

- Terraza edo/eta lorategia
- Sukalde erabat hornituak
- Garaje itxiak



Irudi probisionala

Merkaturatzea: PROEL > Finantziatzaia: CaixaBank

Informa zaitetz: 900 11 00 22 - neinorhomes.com - Hipodromo etorbidea , 10

zerbitzu
mistoak

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

- Makillajea
- Manikura eta pedikura
- Era ezberdinetako depilazioak
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria



Guztira 30 bat lagunek parte hartuko dute Santa Anako parodian. Irudian, iazko antzeziana. TXINTXARRI

Urteko gertaera nagusiak umorez zukutzeko unea

Santa Ana eguna ospatuko dute lasarteoriarrek asteazkenean: pala txapelketaren finalak jokatu dituzte, eta pintxo lehiaketa egingo dute. Gaukoa da ekitaldi izarra: Santa Ana parodia. Aurretik, eskulangintza azokak hartuko du Okendo, igandean.

Txintxarri

Santa Ana egun berezia da Lasarte-Orian; horren adierazgarri da urtero egiten dituzten kultura ekitaldi mordoak. Ekitaldi horietako asko errotuta daude guztiz herrian, Santa Anako parodia, esaterako. Baita eskulangintza azoka tradizionala. Beste batzuk berriagoak dira, baina harrera ona izan dute herritarren artean. Pintxo lehiaketaren kasua da hori. Aurtun, IV. Santa Ana pintxo lehiaketa egingo dute.

Dozena bat tabernak hartuko dute parte pintxo lehiaketan, iaz baino lau gehiagok. Pintxoek badute oinarritzko osagai bat: bakailaoa eta piperrra. Baina lehiaketan parte hartzen duen taberna bakoitzak bere erara prestatu ahal du, beste osagaiak ere erabiliz.

Ondokoak dira Santa Ana egunean pintxoak dastatu ahal diren establezimenduak: Arkupe taberna, Buenetxea kafe-taberna, Araeta Sagardotegia, Usoak taberna, Lasarte taberna, Txema

taberna, Viña del Mar kafetegia, Jalai taberna, Jalgi taberna, Abend garagardotegia, Lavie eta Yolanda taberna. Bi euroren truke dastatu ahal izango dira mokaduak.

Udalak Aterpea merkatarien elkartearekin batera antolatu du ekitaldia. Ramon Ormazabal Aterpeko presidentek eta Jesus Zaballos alkateak herritarrei dei egin diete Santa Ana egunean pintxo lehiaketan parte hartzera.

Egun horretan bada usadioei garrantzia handia ematen dionik

ere, eta horiek izango dute Santa Anaren omenez egingo den mezara joateko aukera, Brigidatarren komentuan. Ttakun Kultur Elkarteak hamaiketako eskainiko die gero bertaratutakoei. Erketz taldeak agurra dantzatuko du gero, eguerdian, Santa Ana karkaban.

Pala txapelketa

Kirolak ere pisu handia izango du festa egunean. Santa Ana palako txapelketako finalak jokatu dituzte arratsaldean, Loidibarren frontoian. Azken asteetan multzoko kanporaketan

HAMABI TABERNAK PARTE HARTUKO DUTE PINTXO LEHIAKETAN; BI EUROTARA JARRIKO DITUZTE

aurrera egin duten bikoteek lehiatuko dute finalean eta hirugarren postua eskuratzeko partidan.

Dena den, hein handi batean, eguneko azken ekitaldiak egiten du berezia Santa Ana lasarteoriarrentzat: parodia



Inguruko baserriko produktuak erosi ahaliko dira ere igandeko azokan. TXINTXARRI



Pintxo lehiaketan parte hartuko duten tabernari batzuk, ekimenaren aurkezpenean, alkatearekin. TXINTXARRI

antzeztuko dute, Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta. Guztira, 30 bat pertsonen osatzen dute parodiako lantaldea. Umore kutsu nabarmenarekin, azken urtean herrian bizitako gertaera garrantzitsuenak errepasatuko dituzte. 22:00etan hasiko da obra, Okendo plazan. Aurretik, aktoreek ohiko afaia egingo dute Virgen de Guadalupe elkartearen, eta desfilea egingo dute hurbilduko dira plazara.

Eskulangintza azoka

Santa Ana eguna gerturatzearekin batera, ohiko azoka egingo dute

igandean. Tradizio bihurtu da dagoeneko Okendo plazako eskulangintza azoka: 33. aldiz egingo dute aurtun. Betiko moduan, bi zati izango ditu: alde batetik, elikagaien produktuak egingo dira, inguruko baserrietan ekoiztutakoak; bestetik, artisauen produktuak ikusi eta erosi ahaliko dira. Herriko eskulangileek ere izango dute lekua azokan.

10:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara egingo da zabalik azoka. Artisauen produktuak erostean gainera, horiek zuzenean nola lan egiten duten ere ikusi ahaliko da. 49

LASARTE-ORIAKO ARTISAUEN LANAK ERE IKUSI AHAL IZANGO DIRA IGANDEKO AZOKAN

artisau bilduko dira guztira, 25 postutan banatuta. Askotariko eskulanak izango dituzte salgai: bitxiak, taillak, makramea, larrua, esmaltea... Bestalde, 24 postuk hainbat motatako janari-produktuak eskainiko dituzte: kontserbak, postreak, hestebeteak, gazta, ezitia...

Herriko artisauak

Herriko artisauen lanak ere ikusgai egingo dira, udaletxeko arkupeetan. Biyak Bat jubilatuen elkartearen eskulanak, Zurlanketaren egurrez egindako taillak, herritarrek egindako ehoziri-lanak, eta Patxi Altunak egindako maketak. Urtean zehar egindako lanak erakutsiko dizkiete gainerako herritarrei. Aurtun, omendua Ramon Roteta sukaldaria izango da. Hondarribian du jatetxea, baina are ezagunagoa egin du ETBko telebista saioak. Eguerdian egingo diote omenaldia, haren ibilbidea saritzeko. Unai Zabala artisauak berak egindako aizto bat emango dio omenaldi moduan.

Txikienean ere izango dute azoka egunean zer egitekoa: eskulanen taillarrak egingo dituzte, artisauen moduan materialak lantzen ikas dezaten.



NEURE KABUZ

ASIER ODRIOZOLA

Turistak

Gustuko dut garaian garaiko kontuetaz idaztea txoko honi dagokion iritzi artikuluan. Gure Esku Dagoren galdeketa galdeketa bezperan, gabonei lotutako zerbait eguberriaren bueltan, futbolari buruz derbiaren itzalean. Horregatik, turistari keinu txiki bat uztail betean. TSST autobus konpainiaren kotxerak, hain zuzen ere.

Arreta kendu dit berriki irakurtzeak Bartzelonako herritarren lehen kezka iturri ez dela korrupzioa edo autodeterminazio galdeketa, ezta egoera ekonomikoa ere, turismoa baizik. Gehiegizko turismoa. Diru sarrera handia izanagatik, kezka bihurtu da Bartzelonako hirian. Hori irakurri eta lan kontuengatik hara joatea egokitu zait berriki eta... bertatik bertara ulertzen dira gauzak. Ez nau harrizten bertakoen egonezinak. Kale bazter guztiak atzeritarrez josita daude. Katalana baino gehiago entzuten den hizkuntza ez da gaztelera; ingelesera, frentsesera, errusiera eta beste batzuk baizik.

Horrek hiriaren arima ikutzen du, edozein herri edo hiri zapaltzerakoan hango, bertako, lekuko jende, ohitura, hizkera eta idiosinkrasia bizi nahi izaten dituzu bixitari zarenean. Bartzelonako kasuan, bertakotasuna izkutatzen ari da gainezkako turismoarekin, eta hori bada kezkarako iturri. Eta, beste neurri batean bada ere, ez al da Donostian gauza bera gertatzen ari? Ni neu, geroz eta deserosoago ari naiz sentitzen Boulebarrean, alde zaharrean eta, orohar, hiri osoan. Garai bateko Donostia ari naiz faltan botatzen eta daraman bideak geroz eta atzerago utziko du gogoan dugun hura. Berandu ote dagoeneko? Nola kudeatu errealtate hori? Ez dut arrastorik ere.

Bien bitartean, hemen, Lasarten, ez dugu arazo hori. Behin ikusi nuen turista bat, motxila bizkarrean, gure kaleetan eta berehala esan nion neure buruari: turista bat gurean? Hau galduta zebilek! Jarrai dezatela etortzen gutxi batzuk, galdutako aleak.

Uztailaren 28an
banatuko da ikasturteko
azken Txintxarri aldizkaria!

Bidali zuen oharra, zorion agurrak,
gutunak... uztailaren 26a baino lehen:

txintxarri@txintxarri.eus
943 37 14 48
688 68 35 10



txintxarri

Musikaren historia, soinu tresnen bidez

'Soinu-tresnak Euskal Herri musikan' erakusketa ikusgai dago igandera arte Mercero gunean. Igandean goizez eta arratsaldez bisita gidatuak eskainiko ditu Juan Mari Beltran musikologoak. Tresnen bidez herri kulturaren murgiltzeko aukera du bisitariak

Txintxarri

Euskal Herriko musikaren dokumentazio zentroa Lasarte-Oriara lekualdatu da behin-behinean. Zati bat behintzat, Juan Mari Beltran musikologoaren erakusketa ikusgai baitago igandera arte. Euskal Herriko musikaren historia tresnen bidez jarraitzeko gonbita egiten du erakusketak. Gainera, igandean bertan Beltranek berak bisita gidatua eskainiko du. 12:30ean izango da goizekoa, eta 18:30ean hurrengoa. Erakusketa arratsaldez bisitatu ahal izango da, 19:00etatik 21:00etara. Igandean, berriz, goizean ere egongo da ikusgai.

Oiartzungo Soinuenea zentroko musika tresnak bertatik bertara ikus daitezke erakusketan. Musika sortzeko prozesua ere azaltzen da bertan. Kasu askotan, lana izan da musika tresnen hastapena, ote eta sagar jotzeak joku erritmikoak bilakatzean. "Magia sortzen da. Ez da berdina lauzpabost ordu lan gogorrean aritzea, edo bata besteari zirikatuz jolasean aritzea", azaldu du Beltranek. Modu horretan, Euskal Herriko txoko askotako sagar joleak musikariak ere bihurtu ziren.

Motaren arabera sailkatuak daude tresnak Mercero gunean.

Hots jostailuak dira mota horietako batzuk. Irudimena lantzeko tresnak dira horiek, eta hezkuntzan hainbat funtzio bete dituzte historikoki, psikomotrizitatea eta trebetasuna lantzea, besteak beste. Gainera, askotan beste tresnen prototipo bihurtu dira, benetako soinu tresnen funtzionamendua imitatzen dute eta.

Musika egiteko ez da tresna konplexurik behar izaten. Nahikoa da bi harri elkarren aurka kolpatzea, talkaren

SOINUENEA MUSEOAREN HAINBAT PIEZEKIN OSATU DA ERAKUSKETA MERCERO GUNEAN

ondorioz sortzen den erritmora jolasean hasteko. Kriskitinak dira horren adibide. Herri musikan gisa horretako tresnak erabili izan dira bestelako tresnak laguntzeko.

Tresna erabilienean Alboka da Euskal Herriko iruditerian iltzatutako haize tresnetako bat. Instrumentu horren laguntzarekin kantatutako abesti askok kontatzen dute

Euskal Herriko historiaren pasarteren bat. Baina jotzeko, barneratua eduki behar da arnasa etengabe botatzeko teknika.

Lehenengo akordeioak ere badaude ikusgai. 1920ko hamarkadako Euskal Herriko "tresna hegemonikoak" dira, Beltranen hitzetan. "Txistulari eta dultzainero zaharren musika antzeman daiteke doinu horietan".

Jende gehienarentzako ezezagunak diren tresnak ere badaude. Herriko plazetan jotzeari aspaldi utzi diotenak, eta musika eskoletan dagoeneko irakasten ez direnak. Zarrabetea, adibidez. Biolin antzeko bat da, baina mekanikoa; hari instrumentua da, tekladuna, eta eskuaz gupil bati eragiten jotzen da.

Bitxikeria ugari Erakusketan badaude ere musika tresnatzat hartzen ez diren instrumentuak. Eltzegorra, esaterako: soinu zatarrak eragiten du, helburua animaliak uxatzea baita. Ontzi baten barruan soka bat igurtziz sortzen du soinua.

Herri kulturak lotura estua du musikarekin, eta erakusketak aukera eskaintzen du Euskal Herriko historian sakontzeko. Bidaia horretan, musika tresnen laguntza du bisitariak.



Beltran, zarrabetea jotzen. TXINTXARRI



Beltran, azalpenak ematen joan den astearteko bisita gidatua. TXINTXARRI



Wha Wha Buga Band taldea, Okendon jotzen, iragan larunbatean. TXINTXARRI

Kaleak alaitu dituzte Kultur Kale Zikloaren kontzertuek, eguraldi ona aprobetxatuta

Eguraldi ona baliatuz, herritar ugari irten ziren kalera joan den larunbatean, arratsaldean. Okendo plazara gerturatzeko hautua egin zuten horietako askok. Izan ere, Wha Wha Buga Band taldeak kontzertu zoragarria eskaini zuen bertan. Pop, rock, funk eta blues estiloak nahastuz, kanta interesgarriak jo zituzten ondoko tabernetako terrazetan eserita zeuden kuadrilla mordoaren aurrean. Uztaila osoan zehar luzatuko den ekimena da hau; herriko hainbat gunetan egiteko asmoa dute. Aurreko astean, Everlevel taldeak eskaini behar zuen musika saioa Tximistarreta parkean, baina eguraldi kaskarra dela eta, bertan behera geratu zen. Dena den, aurrerago joko dutela jakinarazi dute. Datorren larunbatean Zabaletan joko dute Rockabilly Riot eta Azkaiter Pelox taldeek.



Gazteak Ramon Ormazabal, Ormazabal loradendako jabearekin, loreak txukuntzen aritu ziren. TXINTXARRI

Gaztetxoak, herriko lanbideak ikasten

Lasarte-Oriako Aterpea Merkatarien elkartearekin elkarlanean, herriko lanbideak gertutik ezagutzen aritu dira asteotan txokotako gaztetxoak. Egun batez bada ere, lorezainen, bidaia agentzietako langileen, eta kafe saltzaileen egunerokoan murgilduta ibili dira

Maddi Noriega

Lasarte-Oriako ofizioak ikasten aritu dira asteotan, udako txokotako gazteak. Lorezaintzaz, kafe saltzeaz, bidaiez, ilea apaintzeaz eta beste zenbait lanbide gehiagoz ikasi ahal izan dute gazteek herriko merkatarien eskutik.

Ostiral goizean, Aterpea merkatarien elkarteko hainbat komertzioetako langileekin, eguneroko beraien lanetan jardun ziren; loreak txukuntzen, hainbat lurraldetako kafeak ezagutzen, munduko kontinenteetako ezaugarriak ikasten, eta beste zenbait lanetak aritu ziren.

Ttakun Kultur Elkarteak, herriko merkatariekin elkarlanean antolatutako ekintza izan da. Horren bitartez, herriko gaztetxoek lanbideak gertutik ezagutu ahal izan dituzte.

Atsobakar ezagutzen

Asteartean berriz, Atsobakar egoitzara gerturatu ziren, bertakoekin goiza igarotzera.

11:00etarako iritsi ziren egoitzara gaztetxoak, eta ordurako, zain ziren Atsobakarren. Horrela, lehen kontaktua egin eta elkarrekin izenak ikasten aritu ziren bitartean, gozo bana eman zieten gaztetxoek bertako gizon-emakumeei.

Horren ostean, bertakoekin batera, zenbait abesti kantatu eta dantzatu ahal izan zituzten.

Goizarekin amaitzeko, koloretako oihala eskuetan hartu, eta azken ekintza batekin eman zioten amaiera bisitari. Giro alai bezain hunkigarriak bizi zituzten.



Gaztetxoak goiz alai igaro zuten Atsobakarrekoekin batera, asteartean. TXINTXARRI



ALEX TELLO

'Azken Muxua' film laburrean lan egin du Isa Fernandez de Agirrek

Alex Telloren zuzendaritzapean, *Azken Muxua* film laburra grabatu dute Elena Irureta eta Telmo Irureta izeba-ilobek. Grabazioan, eta trailerrean ere bai, Isa Fernandez de Agirrerren ekarpena ikus daiteke, berak egin baitu edizioa. Hortaz gain, kartelaren irudia ere berea da. Sei minutuko ikusentzunekoa da, eta Youtuben dago ikusgai dagoeneko.



TXINTXARRI

Dinbi Banda Senegalera doa

Lasarte-Oriako Dinbi Banda Batukada Taldeak Senegalera egingo du bidaia. Bertako kantak, musika, jendea eta kultura ezagutzeko asmoarekin antolatu dute bidaia, baina horrekin batera, bertakoei laguntzeko, arropa, sendagaiak, jolasak, etab. jasotzen aritu dira egunotan, Lasarte-Oriako Artizar tabernan.

Karmengo jaiak, Oria auzoaren ikur

Gogotik ospatu zuten Oriako auzotarrek Karmen eguna. Eguraldi bikaina lagun, ekintzaz beteriko egitarauaz gozatu zuten, goizetik hasi eta iluntzera arte. Joan den igandetik aurrera beste ikur bat ikusi ahalko dute herritarrek Brunet-eneako parke alboan. 'Corten' altzairuarekin Miguel Angel Oribe herritarrek eskultura bat egin du. Hainbat hamarkadetan gure herriaren ikur izandako fabrikaren izena darama, gainera: 'Brunet'. Inaugurazio ekitaldian Jesus Zaballos alkateak hitza hartu zuen. Sebastian Kerejetak, La Esperanza auzo elkartearen izenean, eskerrak eman zizkion udalari elkartearen eskaerari men egiteagatik, eta baita Oribe eskulturgileari ere, "lan bikainagatik".



Karmengo jaien Oriako ongi etorria. TXINTXARRI



Karmengo Amaren kaperako meza nagusia. Solano taldeko bi neska dantzatu zuten agurra. TXINTXARRI



Brunet-eneako parke alboan Miguel Angel Oribe herritarrek egindako eskultura: Brunet TXINTXARRI



Kapera alboko plazatxoan egindako hamaiketako. TXINTXARRI



Brunet-eneako puzgarriak. TXINTXARRI

Eskulturatik metro eskas batzuetara dago Karmengo Amaren kapera. Bertara joan ziren auzotarrak eguerdi partean, meza nagusia entzuzera. Juan Luis Murua apaizak gidatu zuen. Pilar Catalina eta Amaia Lizarraga sopranoek eta Amaia Dorronsoro organo jotzaileak girotu zuten ekitaldia. Era berean, Solano taldeko bi neska gazteek agurra dantzatu zuten. Bukatzean, zain zeukatzen hamaiketako herritarrek, kapera alboko plazatxoan.

Ohiko Sorgin Dantza ere izan zen. Karmengo Amaren kaperan elkartu ziren dantzariak, eta pixkanaka-pixkanaka Brunet-eneako parke aldera abiatu ziren. Han zain zeukatzen hainbat ikusle. Gogotik txalotu zuten dantzari guztien ahalegina, eta kalejira dantzatzera ere animatu ziren. Ondoren, Brunet inauguratu berrira joan eta talde argazkia atera zuten. Eskultura bezala, historiarako geratuko da argazkia ere.

Bien bitartean, ur jolasetan arituz eta puzgarrietan jauzi eginez egin zioten aurre beroari gaztetxoek. Brunet-enean bertan aritu ziren arratsaldean zehar, geratu gabe.

Eta, jaiak ezin hobeto bukatzeko, auzotarrek gorputza astindu zuten Ibai Berriak taldearen doinu dantzagarriek lagunduta.



Karmengo Amaren kaperatik abiatuta, Brunet-eneako parkean amaitu zen Sorgin Dantza. TXINTXARRI



Bidegurutzeak bereziki arriskutsuak izaten dira. PIXABAY

Martin Vicioso

Egunero, ibilgailu mota asko higitzen da gure errepideetatik. Neurri batean, arriskua denek duten arren, ukaezina da, istripuetan, ondorio larrienak arinenek pairatzen dituztela. Entzutetsua izan zen martxoaren 16an Ane Santesteban txirrindulari errenteriarrek edukitako istripua. Entrenatzera atera, eta hurrengo oroitzapena ospitalean du Ale Cipollini taldeko txirrindulariak. Auto batek kolpatu eta ihesari eman zion gidariak.

Berriz ere errepidean da Santesteban, baina denek ez dute patu bera izaten. Hego Euskal Herrian, azken urteetan, txirrindulari bat edo gehiago hil dira urtero. Ziklista federatuen kopuruak gora egin du eta, beraz, errepideetan aritzen diren txirrinda kopurua duela hamar urte baino handiagoa da. Dena den, hildakoak eragiten dituzten istripuen kopurua behera joan da Euskal Autonomia Erkidegoan 2012tik hona. Urte hartan lau lagunek galdu zuten bizia bizikleta gainean zeudela. 2013an beste hainbeste izan ziren, eta zenbakiak pixkanaka behera egin du ordutik. 2015ean bi hil ziren, eta 2014an eta 2016ean, bana.

Kontzientziaziorako gakoa

Kotxearen eta bizikletaren arteko edozein istripuk ondorio larriak ekar diezazkioke txirrindulariari. 23 urtez azpiko Grupo Eulen

Segurtasun eza, errepidean kirola egiteko oztopo

Zeresana eman dute azken hilabeteetan ziklistek errepidean edukitako istripuek. Auto gidari batzuen arduragabekeriak eta errepide batzuen segurtasun ezak eztabaida piztu dute: zigorrak gogortzea ota da talka kopurua jaisteko beharrezko neurri bakarra?

Jira-Bira taldean lehiatzen den Iñigo Altuna herritarrak azaldu duenez, "kontuan hartu beharreak gakoa" da hori. Alde batetik, "a u t o e k e r r e s p e t u handiagorekin" joka dezaten, eta bestetik, txirrindulariek beraiek kontziente izan daitezten "errepideak berak duen arriskuaz". Ziklista gazteak azaldu duenaren arabera, "arduragabetasunez jokatzuz gero, kaltetuenak" gu gara.

HILDAKOAK UTZI DITUZTEN ISTRIPUEN KOPURUAK BEHERA EGIN DU AZKEN URTEETAN EAE-N

Beste galdera bat sortu du arazo horrek: nahikoa da gidari eta txirrindulariek arduraz jokatzeko edo gehiago babestuko dituen legediaren beharrea daude?

Seguru aski, biak izango dira, neurri batean, beharrezkoak. Altunak adierazi du: "Legeak teoriar babesten gaitu, baina arauak ez badira betetzen, alferrik da".

Arauen ezagutza

Gauza jakina da autoa errepidean gidatu ahal izateko zenbait arau barneratu behar direla, horien artean txirrindulariekin izan beharreak jarrera arautzen dituztenak.

Besteak beste, ziklista aurreratutik ahal izateko bataren eta bestearen

Errepidea autoena soilik ez dela barneratu behar dela uste dute txirrindulariek. Altunaren ustez, baldintza seguruetan gidatzeak "bost minutuko atzerapenarekin ailegatzeak" baino pisu handiagoa eduki beharko luke.

Hala ere, txirrindularien artean kontzientziazioa sustatu behar dela uste du gazteak. "Ahal denean autoei bere bidea egiten utzi behar diegu, beti ere baldintza seguruak baldin baditugu alde batera egiteko". Izan ere, "ez dugu ezer irabazten autoak oztopatuz".

Errepideak beteta

Zaila da zehaztea errepidean kirola egiteko ohitura duten ziklista edota korrikalari kopurua.

Duela urte batzuk baino fitxa federatibo gehiago daude, eta kirol froga herriko asko antolatzen da azkenaldian, bai zikloturistei zuzendutakoak baita duatloi eta triatloiak ere. Hala eta guztiz ere, federatutakoak errepideetan entrenatzen dutenen herena besterik ez lirerateko izango.

Halaber, jende askok hartzen du kotxea eguneroko egin beharretarako eta aisialdirako, eta ondorioz, errepideak beteta daude lanegun eta jaiegunetan. Altunak oso ondo ezagutzen du erreallitate hori. 23 urtez azpikoen mailan lehiatzen da, eta egunero hartu behar izaten du bizikleta entrenatzeko.

"Ikasurtean zehar, arratsaldez entrenatu ohi dut, unibertsitatetik ateratzean. Udan, berriz, goizetan ateratzen saiatzen naiz". Orduategiak ere bere eragina du istripuak eragiteko orduan. Izan ere, gidariek ez dute jarrera bera erakusten eguneko momentu guztietan. Ordu gorietan entrenatzea arriskutsuagoa da. Batez ere, jendeak lanera joan aurretik edo ondoren autoa hartzen duenean. "Momentu horietan, presarengatik edo, azkarrago gidatzen du askok, eta bizikleta aurrean izatean urduiago jartzen diren joera nabari izan dut", dio Jira-Bira Grupo Eulen taldeko txirrindulariak.

Kotxea arduragabe hartzen duten horiek ere zeharo arriskutsuak dira bizikleta hartzen duten kirolarientzat. "Saiatzen gara, adibidez, festetan dauden herri edo gunek ekiditen.

arteko metro eta erdiko tartea errespetatu behar izatea, biribilguneetan tropel osoari bidea uztea eta, segurtasuna bermatu aldera, bi txirrindularik paraleloan aritzeko eskubidea izatea.

"Gidari askok ez dituzte arau hauek ezagutzen eta ernegatu egiten dira. Honen ondorioz, edo presa dela eta, mugimendu arriskutsuak egiten dituzte", dio txirrindulari gazteak.

ZENBAIT MOMENTU ARRISKITSUAGOAK DIRA BIZIKLETA HARTZEKO; ORDU GORIAK ADIBIDEZ

Batez ere, goizean entrenatzen dugunean", nabarmendu du Altunak. Alkohola edan edota drogak kontsumitu ostean autoa

ARROPA ARGIA EDO ISLATZAILEA ERABILTZEAK IKUSGARRITASUNA HOBETZEN DU

hartzen duenik badago, eta kontrolak ipini arren, zaila da jakitea noiz topa daitekeen egoera arriskutsu bat aurrez aurre.

Badaude, gainera, berezko arriskua daukaten errepideak. Horietan izaten dira istripu gehien, eta ez dira bizikletarekin aritzeko egokienak. Esaterako, Gipuzkoan talka gehien biltzen dituzten gunek Gaintzurizketako gaina, eta Getaria eta Zarautz arteko errepidea dira. "Nahiz eta bada k i g u n e arriskutsuagoak daudela, ezin ditugu beti ekidin". Kasu horietan, beraz, komeni da gidariek kontu handiagorekin ibiltzea. Azken batean, kontziente izan daitezela autoan ez doazen, eta hauskorragoak diren, erabiltzaile gehiago dituela errepide horrek.

Bide hobek, posible

Neurriak har daitezke errepideak denontzako bide seguruagoak izan daitezten. Txirrindulari profesionalak ere beren iritzia eman izan ohi dute gai honen inguruan. Haimar Zubeldia usurbildarrak hala zioen sare sozialetan, maiatzean, AEBetan Californiako Tourrerako entrenatzen ari zela: "Txirrindularion ametsa, zergatik ez horrelako bidegorriak gurean?". Bere taldekide batzuekin batera ageri zen bidean, bizikletentzako bide batean gora.

Euskal Herriko bizikletentzako bideen gabeziak galdetuta, Iñigo Altunak garbi erantzun du: "Ez dira entrenatzeko baliogarriak". Abiadurari dagokionez, mugatuta daude eta ez daude kirol jarduerara gogorrerako prestatuak. Hau da, errepideak arriskutsuak badira eta bidegorriek ez badute txirrindularientzako balio, beste alternatibaren bat bilatu beharko dute.

Andorran, altueran entrenatzen aritu da kirolari gaztea asteotan. Bertan, arau desberdinak bete behar dituzte motordun ibilgailuen gidariek, "zorrotzagoak".

Esaterako, txirrindularia aurreratutik ahal izateko metro eta erdiko distantziaren ordez, bi metrokoa uztera daude derrigorituak bertako gidariak. Hala ere, "antzeko arazoa" dagoela azpimarratu du gazteak. Izan ere, legedi gogorragoa izanagatik ere, "arduragabeak han ere badaude". Ziklista profesional askok bere bizilekua Piriniotako herrialdean dutela kontuan hartuta, "serio hartu beharreak" gaia da.

Talde babesa

"Saio gogorrenak bakarka egiten ditugu, baina bestela, taldean

entrenatzea gustatzen zaigu", azaldu du Altunak. Tropeltxoak babesa eskaintzen dio txirrindulariari. Mugimendu landuagoa egin behar du autoak hura aurreratzeko, eta errepide arriskutsuetan edo norabide bikoitzeko bideetan beti ez da posible izaten. Ikusgarritasun handia behar da, segurtasunez, halako aurreratzeko saiatzeko.

Binaka joatean, bata bestearen ondoan joatea baimenduta dute ziklistek. Gidari askok ez du araua ezagutzen, ezta kasu horietan marra jarraia zapal dezakeenik aurreratzeko. "Hala



Ziklistentzako egokiak diren bidegorrien beharrea dira. PIXABAY

ere, ahal den heinean, bazterbidea zapaltzen saiatzen gara, zirkulazioa bideratzeko asmoz". Inguruko bideak hobetzeko uste du Altunak neurri egingarri bat bazter horiek hobetzea dela. Segurtasuna handituko luke, eta errepideak hobek izango lirateke auto gidari eta txirrindularientzat.

Ikusgarritasuna da txirrindulariek, haien segurtasunerako, zaindu beharreak beste ezaugarri bat. Erabiltzen dituzten jantzien koloreak, bizikletako osagarriak... ikusteko errazak izan beharko lirateke. Islagailu homologatuak den arazo bilhurtzeko, beste zenbait gairekin gertatu den moduan. Txirrindulari lasarteriatarrak ez du uste hala izango denik: "Jendea jakitunago da gaur egun. Ia astero entzuten ditugu istripuen albisteak, eta arazoak duen larritasuna gero eta gehiagotan aipatzen da".

Hobetzeko puntuak identifikatuta, hurrengo urratsa ematea da askotan zailena. Espainiako Barne ministro Juan Ignacio Zoidok gaiaren inguruko iritzia eman zuen maiatzean. Polizia kontrol gehiagoren beharra, zigorrak gogortzea eta kontzientziazioa handitzea ziren bere gakoak. Gerora aplikatuko diren neurri horiek nahikoak ote diren beste eztabaida bat izango da. Baina, dudarik gabe, aurrerantzean arazoa ezingo da saihestu, eta txirrindularientzako seguru izango den testuingurua lantzeraz behartuta egongo dira erabakiak hartuko dituztenak.

Moda hutsa baino gehiago

Esan bezala, azken hilabetean, txirrindulari ospetsuek jasan

Istripuak saihesteko zenbait aholku

Gidarientzat

- Ez gidatu sakelako telefonoarekin hitz egiten bazaude. Arreta faltagatik izandako istripuak ugaritu dira.
- Aurreratzeko 1,5 metroko tartea errespetatu.
- Kontrako norantzan txirrindularia badator, ez aurreratu.
- Maniobrak aurrez adierazi.
- Klaxona erabili ezagutzen ez diren bideetan, beti ere, txirrindularia oso gertu ez badago.
- Aparkatzeko garaian, ziklistarik ez datorrela ziurtatu.

Txirrindularientzat

- Kaskoa beti erabili.
- Ahal den heinean, ikusgarria den arropa eta islagailuak jantzi.
- Besoekin maniobrak adierazi.
- Ahal denean, bazterbidetik joan.
- Semaforoak errespetatu, eta ez ibili sigi-saga hiri barnean.
- Ahal bada, taldean joan.
- Bizikleta egoera onean eduki.



Datorren astean Espainiako Txapelketa jokatuko dute Martin ahizpek eta Paula Sevillanok. BURUNTZALDEA IKT

Urrezko bi domina Euskal Herriko Txapelketan

Buruntzaldea IKTko Ainhoa eta Leire Martinek absolutu mailako Euskal Herriko Txapelketan bi urre etxeratu dituzte. Urumeako trabesian, berriz, podiumean sailkatu ziren Xabier Elizegi eta Laura Igea Master1 eta Master2 kategoriatan, hurrenez hurren

Txintxarri

Buruntzaldea IKT taldeko igerilariak pozik itzuli dira Gasteizen egin duten Euskal Herriko txapelketatik. Ez da gutxiagorako: junior eta absolutuen mailan bi urrezko domina, EAEko marka bat, eta taldeko hiru marka hautsi dituzte. Ez hori bakarrik: 11 marka pertsonal ondu dituzte igerilariak.

Ainhoa Martinek hasi zuen lehiaketa. Ezin hobeki, gainera. Lehen proban, 200 bular proban, aurkaririk ez zuen izan Martinek.

Urrea eskuratu zuen eta taldeko marka berri bat hautsi zuen, marka pertsonala ontzeaz gainera. 2:43,13 behar izan zuen 200 metroak betetzeko. Gainera, EAEko 14 urtez azpikoen errekor berri bat ezarri zuen.

Gainerako hiru probatan ere txukun aritu zen igerilari lasarteoriatarra. 100 metro librean 1:04,34 marka pertsonala lortu zuen, baita 200 metro bizkar proban, 2:31,31 denborarekin.

Leire Martinek ahizparen maila berbera erakutsi zuen. 200 metro bular proban laugarren sailkatu

zen absolutuen mailan, 2:49,38ko marka pertsonala onduta. 50 bizkar proban 31,03 lortu zuen, eta bere marka hoberenetik oso gertu geratu zen, 12 ehunetara ere lehiatu zen Leire Martin. 100 metro tximeletako marka pertsonal berria ezarri zuen 1:09,71 denboran. Azken proban, berriz, 800 metro librean, marka pertsonalaz gainera urrea eskuratu zuen absolutuen mailan, 9:41,45 denborarekin.

Gainerako taldekideek ere bikain aritu ziren Gasteizen.

Paula Sevillano goizeko saioan lehiatu zen, 100 metro eta 50 metro bizkar probatan. Lehenengoan marka pertsonala ondu zuen ia, ehuneko batera geratuta (1:07,97). Bigarrenean, berriz, lortu zuen marka pertsonala: 35,69ko denbora lortu zuen.

Jon Ibargoienek 100 metro librean zituen begiz jota, eta 1:01,42ko denbora lortu zuen, bere marka onenetik 78 ehunetara.

Bestalde, Nahia Zudaire nagusi izan zen igeriketa egokituan; sailkapen orokorrean ez zuen areririk izan. 3:00,27ko denbora egin zuen 200 metro librean; 54,03 bizkar estiloko 50 metrokoan; eta 39,63 50 metroko estilo librean.

Aste honetan atsedean pixka bat hartu eta gero, berritoki lehiari ekingo diote Buruntzaldea IKTko igerilariak. Unai G. Somovilla alebina Bartzelonan dago. Gaur proba garrantzitsua du: Espainiako Txapelketako 100 metro bizkar eta 100 metro bular probatan parte hartuko du. Hurrengo astean Leire eta Ainhoa Martin eta Paula Sevillano

aritu dira Espainiako txapelketan, Malagan.

Trabesiak

Igerilari lasarteoriatarrek asteburu arrakastatsua bizi zuten, beste behin zeharkaldietan. Donostian jokatuako Urumea ibaiko trabesian, herriko igerilariak maila bikaina erakutsi zuten.

Laura Igea herritarrak 39:05 minututan amaitu zuen proba, Master2 kategoriatan bigarren azkarrena izatea lortuz. Txuri Aranburu donostiarrak egin zuen denborarik onena bere mailan, eta Igea baino minutu bat lehenago helmugaratu zuen.

Bestalde, Xabier Elizegi ere oso lasterketa ona egin zuen. Sailkapen orokorrean zortzigarren postuan iritsi zen helmugara, 27:39 minutuko denbora eginez. Master1 kategorian, berriz, podiuma zapaltzeko aukera izan zuen herritarrak. Izan ere, hirugarren kronorik onena markatu zuen, Luis Goñi hernaniarraren eta Ander Vilariño donostiarraren atzetik.



Laura Igeak bigarren postua eskuratu zuen bere kategorian. BURUNTZALDEA IKT

ASTE BURUKO HITZORDUAK

IGERIKETA

ZEHARKALDIK

25 herritarrek Getaria-Zarautz zeharkaldian parte hartuko dute, 2.850 metroko ibilbidea burutzeko.
Igandea. 11:30. Getaria.

ZEHARKALDI MOTZAK

Nora Imaz, Paula Sevillano eta Unai G. Somovilla gaztetxoek Getaria-Zarautz zeharkaldiaren bertsio laburra egingo dute.
Igandea. 10:30. Zarautz.

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKT taldeko Unai G. Somovilla igerilariak alebin mailako Espainiako Txapelketa lehiatuko du 100 metro bizkar eta bular frogatan.
Ostirala. Bartzelona.

ARRAUNA

GIPUZKOAKO LIGA

Madalen Jaietako Emakumezkoen II. Traineru Ikurrina jokatuko dute Intza Fernandezek eta Donostiarrak.
Larunbata. 18:30. Pasaia.

PALA

XXXVI. SANTA ANA TXAPELKETA

Santa Ana egunez, XXXVI. Santa Ana Txapelketako final nagusia eta kontsolazio finala jokatuko dituzte sailkatutako lau bikoteek.
Asteazkena. Loidibarren pilotalekua.

HERRI LASTERKETAK

SANTIAGO KROSSA

Raul Gomez Margallo herritarrak Santiago Krossean parte hartuko du, 8.250 metroko ibilbidean.

Asteartea. 10:30. Irun.

TXIRRINDULARITZA

JUNIORRAK

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako juniorrek mendiko kriteriumetan parte hartuko dute.
Larunbata eta igandea. Oñati eta Segura.

KADETEAK

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako kadeteek Txapel Gorri saria lehiatuko dute.
Larunbata. 10:00. Ordizia.

ZALDI LASTERKETAK

VII. JARDUNALDIA

Lasarte-Oriako Hipodromoko VII. Jardunaldia jokatuko dute. Gipuzkoako Foru Aldundia Saria da eguneko lasterketa nagusia.
Igandea. 17:30. Hipodromoa.

ATLETISMOA

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Maria Eugi atletak 200 metroko eta 4x100 metro txandakako lasterketan parte hartuko du.
Asteburua. Bartzelona.

Pala txapelketa, azken txanpan murgilduta

Asteazken arratsaldean Santa Ana Pala Txapelketako 36. edizioko final nagusia jokatu dute. Aurten, sei bikotek hartu dute parte, elkarren aurka bitan jokatu. Aurreko urteetan bezala, Loidibarren pilotalekuan jende ugari biltzea espero dute

Txintxarri

Parodiarekin batera, pala txapelketa da Santa Ana eguneko beste ekitaldi finkoa; aurten, 36. aldia du. Azken asteetan multzoko ligaxka jokatu ondoren, zehaztuak daude finalak eta hirugarren eta laugarren postuko partidak jokatu dituzten bikoteak. Haatik, edizio hau ixteko orduan jokatu gabe zeuden finalerdiak, eta, beraz, jakiteko zegoen finalen osaketa.

Sei taldeko ligaxka osatu dute, eta joan etorriko partidak egin ostean, Xenki Astiazaranek eta Iñigo Arluziagak osatutako bikotea lehen postuan geratu da. Finalerdiak jokatzekoak ziren atzo Josu Iparragirrenen eta Fernando Martinen aurka. Azken horiek hirugarren sailkatu dira multzoko ligaxkan. Astiazaran eta Arluziaga dira faboritoak Santa Ana txapelketa irabazteko; iaz ere garaile izan zen bikotea.

Bigarren finalerdiak jokatu zuten atzo Haritz Urkia eta Jon Pello Artertxe bikoteak, Jon Pagolak, Jesus Ferreirak eta Alain Etxebestek osatutako taldearen aurka. Finalerdietako garaileek Santa Ana egunez, arratsaldean jokatu dute finala, Loidibarren frontoian. Aldez aurretik jokatu dute hirugarren eta



Arluziaga eta Astiazaran izan dira lehenengo faseko onenak. TXINTXARRI

laugarren posturako partida. 17:15ean hasiko dira partidak. Santa Ana eguneko ekitaldi nabarmena izanik, frontoia ikusleez betetzea espero da, aurtengo bikote hobereenak nor baino nor lehian ikusteko.

Partiden ondoren, sariak banatuko dizkiete finalistei, eta opariak zozketatuko dituzte parte hartzaileen artean.

Sei talde izan dira aurten pala txapelketan, baina horietako batek erretiratu egin behar izan du azkenean: Gari Arteagak, Aitzol Irazustabarrenak eta

Axular Iparragirrek osatutako hirukoteak ez du txapelketan jarraitzerik izan.

Suspertzearen zain

Aurtengoa ez da Santa Ana txapelketarik arrakastatsuena izan parte hartzaile kopuruari dagokionez. Sei bikote aurkeztu dira, eta batek ezin izan du lehiaketa amaitu.

Datozen urteei begira, odol berriaren beharrea dira antolatzaileak. Horregatik, herriko gazteen parte hartzea sustatu nahi dute.



2.888 pertsona daude izena emanda. UROLA KOSTAKO HITZA

Lasarteoriarrak, zeharkaldi jendetsuenean, Zarautzen

Getaria-Zarautz zeharkaldian izango dira 25 herritar, 2.850 metroak igeri betezeko erronkaren aurrean

Txintxarri

Ordezkaritza zabala izango du igandean Lasarte-Oriak Getaria-Zarautz itsas zeharkaldian. Guztira, 25 herritar dira parte hartzeak igeriketa proban. Kostaldeko bi herrien arteko 2.850 metroak bete beharko dituzte.

Batzuentzat lehenengo aldia izango da zeharkaldian, nahiz eta beste batzuk ongi ezagutzen duten proba. Iazko lasterketan Iñigo Ibarburuk 11. postua eskuratu zuen, irabazlea baino 1:10 minutu geroago helmugaratuta; Izaskun Salzar seigarren sailkatu zen emakumezkoen master kategorian, eta Xabier Elizegi hamargarren gizonzkoen master mailan.

Gainera, azkeneko zeharkaldien emaitzak ikusita, parte hartzaile asko sasoi onean daudela dirudi. Laura Igearen kasua da hori.

Joan den asteburuko Urumeako zeharkaldian bigarren postua eskuratu zuen, emakumezkoen master kategorian. Elizegik ere parte hartu zuen, eta podiumeko koskara igotzea lortu zuen, gizonzkoen master kategorian hirugarren sailkatu gisa. Zortzigarren izan zen kategoria guztiak kontuan hartuta.

11:30ean hasiko da proba igandean. Infantilak ordubete lehenago uretaratuko dira, 800 metroko zeharkaldia osatzeko. Aurten marka guztiak hautsi ditu zeharkaldiak parte hartzaileei dagokionean: 2.888 pertsona daude izen emanda. Nagusiak taldeetan aterako dira, aurreko probetan eginiko denboraren arabera.

Lehenengo urtean gizonzkoetan garaile izan zen Alex Ojanguren bertan izango da aurten. Amaia Cendoya irabazleak, berriz, ez du oraingo honetan parte hartuko.

Asier Pozo, bigarren Azpeitiko San Inazio sariketan

Xabier Isasaren atzetik sailkatu da Buruntzazpiko txirrindularia, bigarren taldetxoko azkarrena izan ostean

Martin Vicioso

Amaitzear da denboraldia, eta lan bikaina egiten ari da Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako Asier Pozo.

Azpeitiko San Inazio saria lehiatu zuen kadete mailako

txirrindulariak, eta podiumera igotzea lortu zuen beste behin. Goifiber-Godoy taldeko Xabier Isasak baino minutu eta erdi inguru gehiago behar izan zuen lasterketa amaitzeko. Sprint azkarreko txirrindularia dela

erakutsi du oraingoan ere kirolari lasarteoriarrak. Bigarren posturako lehian zen seiko taldetxoko bizkorrena izan zen Pozo.

Denboraldia amaitzetik gertu dira Lasarte-Oriako txirrindulari gazteak. Emaizta on ugari eskuratu dituzte Buruntzazpiko taldekideek 2017an, bai errepidean baita pistan egindako lasterketetan ere.

Hala ere, oportetara joan aurretik, kadeteek bi hitzordu dituzte: Ordizian eta Mutiloan.



Asier Pozo, podiumeko bigarren koskan. UROLA KOSTAKO HITZA



Zale ugari bildu zen igandeko lasterketak ikusteko. TXINTXARRI

'Arrigunaga' zaldi gazteak irabazi du Kursaal Saria

Maila handiko lasterketa egin ostean, hiru urteko zaldi 'Arrigunagak' irabazi du Casino Kursaal saria. 2.000 metroko ibilbidea burutu zuten, eta 9.000 euroko dirusaria eskuratu zuen Imaz Cecak entrenatutako animaliak

Martin Vicioso

Denboraldiko behorren lasterketa garrantzitsuenetakoa jokatu zen pasa den igandean Lasarte-Oriako Hipodromoan. ACM zalditegiko *Arrigunagak* nagusitasunez irabazi zuen Casino Kursaal sari nagusia, bigarren postuan amaitu zuen *Potiri* zaldi bateko aldea atera ondoren. *Rock Eyes* behor

britainiarra geratu da hirugarren.

Bazirudien *Potik* eskuratuko zuela garaipena, baina helmugako zuzenean aurreratu zuen *Arrigunagak*. Hala, bigarren garaipena du Lasarte-Orian behorrak. Izan ere, lehengo urtean helmugan lehena izatea lortu zuen herriko hipodromoan.

Gazteenak irabazi du, oraingoan, jardunalduniko sari nagusia. Hiru urte ditu *Arrigunagak*, podiumean harekin amaitu zutenek baino bi eta hiru urte gutxiago.

Guztira, 15.300 euro banatu zituzten 2.000 metroko lasterketa aurrean amaitu zutenen artean. Lehenak, 9.000 euro etxeratu zituen; bigarrenak, 3.600; hirugarrenak 1.800; eta laugarrenak, 900.

Sorpresarik ez

Casino Kursaal saria jardunaldiko bosgarren eta azken lasterketa izan zen. Aurreko laetan ez zen sorpresa handirik egon. Izan ere, gehienak irabazteko faboritoak ziren zaldiek bereganatu zituzten.

Jose Luis Borregok gidatutako *Bella Canarias* zaldi irlandarrak eskuratu zuen Gipuzkoako Kirol Kazetaritza Elkarteko Saria, jardunaldiko estreineko lasterketan. *Quincyrentzat* izan zen Ayerdi Bitxitegiak babestutako 2.200 metroko froga. *Kanak* eta *Dunnaby* izan ziren, bestalde, *Noticias* de Gipuzkoa eta Garda Seguridad sarietan onenak.

Denboraldiak, aurrera

Udako zazpigarren jardunaldia jokatu da igandean, Lasarte-Oriako Hipodromoan. Gipuzkoako

Foru Aldundia Sariak 15.300 euroko dirusariak banatuko ditu laugarren eta bosgarren lasterketan. *Saumet* eta *Zascandil* zaldiak dira asteburu honetako lasterketak irabazteko faboritoak.

Abuztua gertu dela, urteko froga garrantzitsuenak iristear daude. Horien artean, Maria Cristina Hotela saria. Pasa den igandekoa bezala, behor lasterketa izango da. Denboraldiko preziatuena, alegia.

Arrigunaga behorrak bere hautagaitza erakutsi du jada. Sasoian iritsiko da, baina aurkari indartsuak izango ditu.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA SARIA JOKATUKO DUTE IGANDE HONETAN HIPODROMOAN

Maila txukuna erakutsi du Donostiarrak asteburuan

Intza Fernandezen traineruak urratsak eman ditu Gipuzkoako Ligako lehen estropadetatik gaur arte

Martin Vicioso

Talde gaztea du Donostiarrak, eta onenekin lehiatzeak zuen zailtasunaz jakitun ziren. Aste honetan, beste bi estropada lehiatu dituzte Orion eta Castreñan (Espainia). Zazpigarren amaitu zuten ibaian

egindako frogan eta seigarren itsasoan jokaturakoan, lau eta bost puntu bilduz, hurrenez hurren.

Zortzigarren eta seigarren postuen arteko emaitzak lortu badituzte ere, hobera joan da Donostiara trainerua. Izan ere,

garailearekiko ohiko galera minutu erdi ingurura jaitsi dute. Portugaleteren eta Hernani garaitzea lortu dute, halaber.


Bihar eta etzi, Lekeitio eta Pasai Donibanen lehiatuko dira.

Gipuzkoako Ligan ez du aurkaririk izan San Juan traineruak. Bederatzi estropadetatik zortzi irabazi dituzte. Gipuzkoako Txapelketa eta Eusko Tren Ligako bandera bat ere eskuratu dituzte sanjuandarrek. Arroxak dira, Oriorekin eta Hibaikarekin batera, Kontxako bandera irabazteko faborito.



Intza Fernandez, arraunean. IÑAKI SUAREZ

ZORION AGURRAK



Oihane
Zorionak Oihane! Ondo ondo pasa zure 9. urtebetetzea! Besarkada handi bat denon partetik!



Gema
Zorionak printzesa! Ezkontza eta ezkontza artean, denbora aterako duzu guri "ku-ku" bat egiteko, ezta? Parodia osteko tragoa zure kontu! ;)



Gema
13. urtebetetze zoriontsua hirukote! Arkaitz, Ambar eta Leire. Muxuak!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurrak eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Udalaren kirol instalazioak, bi astean itxita

Lasarte-Oriako Udalaren Kirol-Instalazioen 2017. urteko egutegiaren arabera, uztailaren 23tik abuztuaren 6ra bitartean (bi egunak barne), bi astezko geldialdi teknikoa egingo da, instalazioetan mantentze eta garbiketa lanak egiteko, eginkizun horiek ezin baitira egin instalazioak martxan direla. Igerilekuko ur gutzia berrituko da.



Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, uztailaren 31n, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | | | | 3 | | | 9 | 1 |
| | 5 | 1 | 9 | 4 | | | 7 | 3 |
| 3 | 4 | | | 7 | 1 | 6 | | |
| | | 8 | 1 | | 9 | 5 | 3 | |
| | | 7 | | | 5 | 1 | | |
| 5 | | 3 | | | 4 | 9 | | |
| 1 | 3 | | | 9 | | | 6 | 4 |
| 2 | | | | 1 | | 3 | | |
| | 7 | | 4 | 5 | | | 1 | 2 |

ZAZPI EZBERDINTASUNAK



AZOKA TXIKIA

LAN ESKAINTZAK

ESKAERA

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Interna bezala ere lan egiteko prest eta baita haurrak zaintzeko ere. 617853042

Pertsona bat adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Interna bezala ere lan egiteko prest eta baita haurrak zaintzeko ere. 600767073

Pertsona bat adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Interna bezala ere lan egiteko prest eta baita haurrak zaintzeko ere. 617853042

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Interna bezala ere lan egiteko prest, baita ospitalean zaintzak egiteko ere. 602314670

Gizonezkoa eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Interno bezala ere lan egiteko prest (geriatria laguntzailea) 662421686


Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko (etxean eta ospitalean ere bai). Asteburuetan, jaiegunetan zein gaueetan lan egiteko prest. 606661048 / 943-404015

BESTELAKOAK

ESKAITZA

Neurri desberdinetako kristalezko poteak oparitutako nituzke. 688 633 631.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

| Antxisu | Zabaleta | Atsobakar | Kotxerak |
|---------|----------|-----------|----------|
| 08:00 | 08:10 | 08:15 | 08:20 |
| 08:40 | 08:50 | 08:55 | 09:00 |
| 10:30 | 10:40 | 10:45 | 10:50 |
| 11:00 | 11:10 | 11:15 | 11:20 |
| 11:30 | 11:40 | 11:45 | 11:50 |
| 12:00 | 12:10 | 12:15 | 12:20 |
| 12:30 | 12:40 | 12:45 | 12:50 |
| 13:00 | 13:10 | 13:15 | 13:20 |
| 13:30 | 13:40 | 13:45 | 13:50 |
| 16:30 | 16:40 | 16:45 | 16:50 |
| 17:00 | 17:10 | 17:15 | 17:20 |
| 19:30 | 19:40 | 19:45 | 19:50 |
| 20:00 | 20:10 | 20:15 | 20:20 |

*Abuztuan ez da Manttangorri zerbitzurik egongo

HILDAKOAK

Luis Ferreira Martins. Uztailaren 17an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 21 GANDARIAS-URIBE
Larunbata, 22 DE MIGUEL
Igandea, 23 DE MIGUEL
Astelehena, 24 DE MIGUEL
Asteartea, 25 ORUE
Asteazkena, 26 LASA
Osteguna, 27 GIL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO:
Txintxarri erredakzioan
943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Irigo Gonzalez, Maddi Noriega,
Martin Vicoso, Lorena Lujanbio
eta Adrian Garcia.

Publikitate

Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Seguroa,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi.

Informatikoa

Axier Aztiria.

Administratzailea

Nerea Garziarena.

PUBLIKITATEA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 21

AMASA-VILLABONA Dantza
Oinkari dantza taldeak, eta Hika teatroak, *Sagartu* dantza emanaldia eskainiko dute gaur. Sagarrondotik, sagarra; sagarretik, sagardoa. Euskal Herrian, eta Gipuzkoan sagarrak izan duen garrantzia plazaratuko dute. *Txistulari plazan, 20:30ean.*

LARUNBATA 22

LASARTE-ORIA Musika
Kultura Kalean Zikloaren barnean Azkater Pelox eta Rockabilly Riot taldeak arituko dira. Jazz eta blues, estiloak uztartuko dituzte, modu entretenigarrian. *Zabaleta auzoan, 20:00etan.*

AMASA-VILLABONA Musika
Deborah Carter boskotearen jazz kontzertua izango da. Sarrera doakoa izango da. *Berdura plazan, 20:00etan.*

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA Azoka
Santa Ana jaiei lotuta, eskulangintzan oinarritutako azoka egingo da. Askotariko eskulanak egin, erosi eta ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek. *Okendo plazan, 10:00-14:00etara, eta 17:00-20:00tara.*

ASTELEHENA 24

ZUBIETA Festak
Santio festetetan murgilduko dira zubietarrak datozen egunotan, eta askotariko ekintzak izango dira. Mozorro eguna izango da astelehena. 18:00etan: Jaien hasiera, txupinazoa. Jarraian, txosnen irikiera eta fotokola. 21:00etan: Herri afaria 00:00etan: EGAN taldearen kontzertua. 02:00etan: Joxe Replay taldearen kontzertua. *Zubietan.*



LASARTE-ORIA Santa Ana parodia.

Santa Anaren omenez, jaiak ospatuko dira Lasarte-Orian, eta egitarauaren barruan, Santa Ana parodia egingo da datorren asteazkenean. Arratsaldean, azken entsegu bat egingo dute aktore parte hartzaileek, eta Extremeñan afaldu ostean, desfilean Okendora iritsiko dira, eta bertan egingo dute parodia. *Asteazkena 26, Okendo plazan, 22:30ean.*

ASTEARTEA 25

ZUBIETA Festak
Santio festetetan murgilduko dira zubietarrak datozen egunotan, eta askotariko ekintzak izango dira. Santio eguna izango da asteartea. 09:00etan: Esnadeia. 10:30etan: Meza Nagusia. Ondoren, hamaiketako eta soka dantza. 18:00etan: Emakumeen pala partida, errebote plazan. Jarraian, buruhandiak. 19:00etan: Patxi eta konpainiarekin dantzaldia. *Zubietan.*

ANDOAIN Tailerrak
Tren berdea, bailarako historia ezagutuz. Ekitaldi osagarriak: Haur tailerrak, interpretazio gunea zabalik. 10:00etan, 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan izango dira saioak. *Goikoplaza-Otieta.*

ASTEAZKENA 26

LASARTE-ORIA Santa Ana parodia
Santa Ana jaiei lotuta, urteko bizipenak ekarriko dituzte gogora parodiaren bitartez.

11:00: Meza, Brigidatarren komentuan. Jarraian, hamaiketako. 16:00etan: azken entsegu orokorra, Manuel Lekuona Kultur Etxean. 19:30ean: afaria Virgen de Guadalupe, Extremeña elkartean. 21:30ean: Desfilea, Extremeña elkartetik abiatuta, Okendo plazara. 22:30ean: Parodia, Okendon.

ZUBIETA Festak
Santio festetetan murgilduko dira zubietarrak datozen egunotan, eta askotariko ekintzak izango dira. Oilasko biltzaileen eguna izango da asteazkena. 06:00etan: Oilasko biltzaileen irteera. 14:30etan: Oilasko biltzaileen iritsiera. *Zubietan.*

AMASA-VILLABONA Festak
Villabonako herritarrek festetan murgilduko dira, eta asteazkenean, musika emanaldi erakargarriak izango dira ikusgai. Kaotiko eta Desira musika taldeek, kontzertua eskainiko dute. *Erreboteko plazan, 20:30ean.*

ZINEMA

USURBIL

Baby Driver
Ostirala: 22:25, 00:45.
Larunbata: 22:25, 00:45.
Igandea: 16:45, 22:25.
Capitan Calzonillos: su primer peliculon
Ostirala: 16:45.
Larunbata: 16:45.

Cars 3
Ostirala: 16:00, 16:50, 18:05, 19:10, 20:20.
Larunbata: 16:00, 16:50, 18:05, 19:10, 20:20.
Igandea: 16:00, 16:50, 18:05,

19:10, 20:20.

Gru 3: mi villano favorito
Ostirala: 15:50, 17:00, 18:20, 18:50, 20:25, 22:40.
Larunbata: 15:50, 17:00, 18:20, 18:50, 20:25, 22:40.

La Guerra del Planeta de los Simios
Ostirala: 16:10, 19:00, 21:50, 00:40.
Larunbata: 16:10, 19:00, 21:50, 00:40.

Wonder Woman
Ostirala: 21:30, 00:20.
Larunbata: 21:30, 00:20.
Igandea: 21:30.

Igandea: 16:10, 19:00, 21:50.

La Momia
Ostirala: 00:40.
Larunbata: 00:40.
Igandea: 22:20.

Señor, dame paciencia
Ostirala: 20:50, 22:50, 00:50.
Larunbata: 20:50, 22:50, 00:50.
Igandea: 20:50, 22:50.

Una noche fuera de control
Ostirala: 16:15,

18:20, 20:25, 22:30, 00:35.
Larunbata: 16:15, 18:20, 20:25, 22:30, 00:35.
Igandea: 16:15, 18:20, 20:25, 22:30.

Dunkerque
Ostirala: 15:45, 18:00, 19:20, 20:20, 21:40, 22:40, 00:00, 01:00.
Larunbata: 15:45, 18:00, 19:20, 20:20, 21:40, 22:40, 00:00, 01:00.
Igandea: 15:45, 18:00, 19:20, 20:20, 21:40, 22:40.



LABURPENEA

Dunkerque

Zuz.: Christopher Nolan. **Herr.:** AEB (2017). **Gidoia:** Christopher Nolan. **Aktoreak:** Fionn Whitehead, Tom Hardy, Mark Rylance, Kenneth Branagh. **Iraupena:** 107 minutu

Dinamo Operazioa

Bigarren Mundu Gerran murgilduta, milaka britaniar eta tropa aliatuak, Frantziako Dunkerque hiriko indar aurkariengandik inguratuak aurkitzen dira. Itsasoa atzekaldean, hondartzatik ihes egin ezinik, ezinezko egoera bati aurre egin ezinik aurkitzen dira, aurkariak gerturatzen zaizkien bitartean. Filmak *Dinamo Operazioaz* hitz egiten du, Dunkerqueko miraria bezala ere ezaguna dena: 1940. urteko maiatza amaieran, lurralde frantsesean kokatutako

ebakuazio zail bat. Ebakuazio horren bitartez, 200.000 soldadu britaniarren erreskatea lortu zen, 100.000 frantses eta belgikarrenekin batera.

Christopher Nolan filmaren zuzendariak berak idatzitako gidoietik abiatutako ikusentzunezkoa izan da filma. *Dunkerque* izan da zuzendariaren azken lana, baina lehenago ere, eginak ditu filma bat baino gehiago. Horien artean dira *Interstellar*, *Origen* eta *El caballero oscuro* lan ezagunak.



GREMIOEN GIDA 2017

Arreta profesionalena, zugandik gertu



Igeltseritza



Arkitektura eta Barne-Diseinua

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05
josueigeltseritza@euskalnet.net

Atallu pol. 28
20170 USURBIL

Igeltseritza orokorra
Estalkien berriztatzeak
Fatxaden estaldurak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

josueigeltseritza@euskalnet.net

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN
VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 059 392 - 943 566 640
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria



borobil
arkitektura

- Energia ziurtagiriak • Eraikinen ITEak
- Aktibitate lizentziak • Proiektuak
- Erreformatzak

Kale Nagusia 27-29 behea, Lasarte-Oria
943 50 78 51 - info@borobilarkitektura.eus
www.borobilarkitektura.eus

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE-ERREFORMAK

Pintore kalea 5, Lasarte-Oria
Tel: 943 36 14 71
sugatesukaldeak@gmail.com
www.sugate.net

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKO MARKA GUZTIAK



Iturgintza



Kristaldegi eta Leihoak



Elektrizitatea

ILLARRETA
ITURGINTZA

- ERAKUSKETA ETA SALMENTA
- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA
zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA

Geltoki kalea 21, Lasarte-Oria
943 36 31 47 / 943 37 36 17 52
Tailerra: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com



Uistin kalea, 11 (Zubieta Plaza)
Tel./Fax: 943 36 23 52 - M: 607 234 522

20160 LASARTE-ORIA

- ISPILUAK
- BEIRA APAINGARRIAK ETA ALAKATUAK
- MERKATARITZA-INSTALAZIOAK
- DUTXA-ITXIDURAK
- KRISTALGINTZA OROKORRA



ISU
25. urteurrena

*Mota guztietako leiho, pertsiana,
manpara, toldo eta dekorazioko
profesionalak zure zerbitzura*

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA,
ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOAK

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria
Tel. 943 36 64 95 • Faxe: 943 36 52 22
ventanas_isu@hotmail.com
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil



ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21
600 857 586 - www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)